

B

BARREN

TOKIKOM

Araukak betearazten

Marta San Martin, tritaloi epailea

San Roke Kafetegia

San Roke, 18 behea, Elgoibar



Nekane Aranzabal

- ☼ Getariako produktuetan espezialdua
- ☼ Mariskoan espezialdua:
 - Ostrak
 - Nekorak
 - Kiskillak
 - Txangurroa
- ☼ Txakolin sangria
- ☼ Gin Tonic bereziak etxeko izotzarekin
- ☼ Irlandesak hiru koloretan

**Etorri gu ezagutzera!
Kiroldegi aurrean gaude**

**GOSARI BEREZIAK
LASTER BAZKARIAK**



DEBABARRENEKO II. LANBIDE HEZIKETA AZOKA

#ABIAN

SARRERA IREKIA

ARMERIA ESKOLA /// UNI EIBAR ERMUA /// MUTRIKUKO INSTITUTUA
MEKA LANBIDE ESKOLA /// IMH - MAKINA ERREMITAREN INSTITUTUA
PCPI EIBAR /// PCPI ERMUA MALLABIA

Partekatzailea

Partekatzailea

Partekatzailea



Lanbide Heziketarako Debabarreneko Ikastetxeak



www.debegesa.eus

@AbianAzoka



/AbianDebabarrena

Kontsultatu egitaraua:
Hitzaikiak
Jardunaldiak
...

Armeria Eskolako patioan,
Eibar

MARTXOAK 11 Asteazkena
10:00-14:00
16:00-19:00

MARTXOAK 12 Oatseguna
9:00-14:00
16:00-19:00

MARTXOAK 13 Ostirala
9:00-14:00



**Inma
Mugertza**

Kaixo, lagun!
Nola daramazu
negu euritsua?
Katiuskak alde
batera botatzeko
gogoarekin ziurrenik,
ezta?

Urtarrila eta otsaila izugarri
euritsuak izan ditugu, bai. Altzola eta

Bergarako estazioetako datuen arabera, batzaz beste, 555 l/m2 ja-so dira bi hilabeteotan. Datu aparta benetan! Deba ibaiak urtarrilaren 30ean egin zuen gainezka. Altzolako estazioan ur-maila 4,7 metrora heldu zen, 438.100 m3/s ibaian behera, izugarria! Orduan, Bizkaian izan ziren kalte handienak; Kadaguak ez zuen errukirik izan. Deba ibaiak ere erakutsi zigun bere eremua berreskuratzeko gogoz dabilela.

“Deba ibaiak erakutsi digu bere eremua berreskuratzeko gogoz dabilela”

Hala ere, momenturik latzenak Urumeak eta Ebro ibaiak sortu dituzte azken egunotan, beraien ohiko ibilgutik gainezka egin ondoren. Kasu guztietan ez dira gutxi izan ibaia garbituko balute arazoa konponduko litzatekela esan duten ahotsak. Baina, zer da horientzako ibaia “garbitzea”? Plastikoa, gurpilak, hildako animaliak eta horrelakoak kentzea bada, ados! Ibaia dragatzeaz eta ibaiertzetako zuhaitzak kentzeaz ari badira, baina, oker dabilzala esan behar da. Hidrokultura falta izugarria erakusten du horrek, izan ere, behin eta berriz demostratu da ekintza horiek arazoa konpondu beharrean larriagotu egiten dutela. Ezin gelditu azken egunotan bota duen euri-kopurua, ezta, Ander?

Obrak egingo dira, zubiak bota eta ibaien gerruntzeak estutu, baina ez gaitzen engainatu. Elgoibarren 1988ko uztailaren 19an, Ibaizabal ibaiaren arroan 1983ko abuztuan edo pasa den asteetan Urumean botatako euri-kopurua eta intentsitatea errepikatuko balira, ibaiak beraien bidea egiten jarraituko lukete, oztopo guztien gainetik.



**Ander
Izagirre**

Aupa, Inma! Katiuskak janztera ez naiz iritsi, baina banago bai, euriak bake pixka bat emateko gogoarekin.

Beste behin ere, errekak gainezka ikusi ditugu Euskal Herriko hainbat tokitan. Orain dela gutxi Altzolan eta Mendaron ere bai, gainera. Eta diozun moduan, berriz ere entzun ditugu jendearen ahotan, ez buru ez hanka ez dituzten komentario batzuk. Ez naiz inondik

inora gaian aditua, baina batzuetan uste dut hanka sartzen dugula konponbide bila hasten garenean. Ibaiek zuhaitz edota bestelako “oztopo” batzuk kentzen ditugu, ibaiak kanalizatzen ditugu... Ez al gara konturatzen horrela uraren abiadura handitu eta errekarri sekulako indarra ematen diogula, fardela ondorengo herriei pasatuz? Konponbideak behar dira, noski, baina zentzuzko konponbideak.

“Badabil, bai. Izan ere, setiatu egin dugu, bere inguru guztia okupatuz”

Diozun bezala, erreka bere eremua berreskuratzeko gogoz dabil. Izan ere, setiatu egin dugu, bere inguru guztia okupatuz. Onartu dezagun errekak bere eremua behar duela, arnasteko tokiak behar dituela, eta ez gaitzen horretaz uholdeak gertatzen direnean bakarrik akordatu.

Bestalde, uholdeak daudenean, errekaren ibilguari bakarrik begiratzeko ohitura daukagu, baina ezin dugu ahaztu, bailara osoko kudeaketak eragiten duela errekan. Hau da, mendi puntan basoa modu batera edo bestera kudeatzeak ere eragin desberdinak izan ditza-ke hainbat kilometrotara dagoen errekan. Beraz, politika globalagoak ere beharrezkoak dira konponbideak bilatzeko orduan.

Bukatzeko, momentu aproposa iruditzen zait errekan bukatzen duen zikinkeria guztiaz ohartzeko, Inma. Erreka bazterreko zuhaitzak begiratu besterik ez dago, ze zikinak garen konturatzeko!



barren.eus

E-posta berriak ditugu:

BARREN astekaria:
barren@elgoibarkoizarra.eus

BARREN publizitatea:
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN webgunea:
barren.eus@elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea:
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Ima Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Toponimia

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Herritar maiteak

Beste behin zuengana jotzen dut laguntza eske, ez zaidalako beste aukerarik gelditzen. Joan zen astean ere argitaratu nuen idatzi bat, eta has-teko eskerrak eman nahi dizkiet bi laguni: batetik, Nerea Alustiza PSEko zinegotziari, bere esku zegoen dena egin duelako lagundu diezadaten, eta bestetik, diruz lagundu didan anonimo bati. Mila esker bene-benetan.

Aurreko idatzian jarri nuen Caritasek eta gizarte-zerbitzuetakoek ez zidatela laguntzen, eta hein batean horrela da, baina argitu nahiko nuke hori, badirudielako gaizki hartu dutela batzuek. Beste batzuetan lagundu izan didate, bai, baina oraingo honetan Caritasek ez dit laguntzen eta gizarte-zerbitzuetakoek ere ez. 2.450 euroko zorra daukat eta eskaintzen didaten bakarra zera da: nire etxea, nire bi animaliak eta nire gauza guztiak laga eta etxea beste batzuekin partekatzea; zehatzago esateko, 250 euro eskaintzen dizkirate diru horrekin logela bat alokatu dezadan. Baina hori ezin da. Ikaragarria da ikustea nola ixten duten atea. Ez dut dirurik nahi. Lan egin nahi dut, eta lana eskatzen dut niretzat eta nire bikotekidearentzat. Ostiralean bukatzen zait zorra ordaintzeko epea, eta ordaintzen ez badut, etxe-jabeak nire kontrako salaketa jarriko du eta kanporatu egingo naute. Eta orduan bai ez dudala nora joan izango. Ez dut nire etxea galdu nahi eta laguntza eskatzen dizuet Lanbideko diru-laguntzak berrakibatuz arte.

Maria da nire izena. Lagundu nahi didanarentzat hemen lagatzen ditut harremanetarako bi telefono zenbaki: 667 015 984 / 603 644 117. Nire gainean gehiago jakin nahi duenak dei diezadala eta gustura azalduko diot zein den nire kasua. Herritarren laguntza behar dut. Edozein laguntza eskertuko dut, dena behar dudalako, eta norbaitek diruz lagundu nahiko balit, hauxe du nire kontu korronte zenbakia: 2100 4168 73 2100266927

Maria ☪

Bidea Badago

Asteak dira EHBilduk Euskal Herriko biztanle zein eragile guztiei proposamena egin ziela Euskal Bidea, gure bidea, ibiltzen hasteko. Ez da proposamen itxia, bidea denon artean marraztu behar dugula jakitun, baina ibiltzen hasi eta martxan jartzeko garaia badugula ere ondo baino hobeto dakigu. Ez da bidean emango den lehen urratsa, inondik inora, batzuk zein besteek urratsak eman

eta lanean fin jarraitzen dutelako, baina garaia da guztiok norabide berean indarrak batu eta egin beharreko bidea marrazteko. Helmuga argia da: Independentzia. Geure bidea egin nahi dugu, ez besteak baino gehiago ez gutxiago izateko eta bidea hori ibiltzea herritarro dagokigu. Erabakia orain eta hemen hartu behar dugu, inoren mende edo inoren zai egon gabe.

Herritarrekin proposamena konpartitzeko dinamikaren barruan, martxoaren 7an, larunbata, nazio mailako ekitaldia egingo dugu BECen eta bertara azaltzeko gonbita luzatzen dizuegu. Autobusa ere antolatua dugu nahi izan ezker, 16:30ean Txankako zubitik irtengo da.

EHBildu Elgoibar ☪

Jakin dezagun

BNKk –enpresa canadiarra– eta SHESAK, –Jaurilaritzak kudeatu eta diru publikoz hornitzen duen enpresa– hasi dute Burgoseko lurretan haustura hidraulikoa –*fracking*– egiteko erasoaldia. BNKk aurkeztu duen proiektu batean, Urraca izeneko eremuan, 6 putzu egiteko asmoa dute. Eremu honek Medina de Pomar eta Villarcayo herriak eta Cuesta-Urria merindadea ditu barruan. Udal guzti horiek, denak PPkoak, onartuak dituzte *fracking*-a baztertzeko duten mozioak. Sedano eremuan, udal proiektuak dira, eta Sedano bailarako auzo-batzordeak eta Rio Ubiernako merindadeak uko egin diote euren lurralde alokatzeari. Hori dela eta, BNKk proiektu hau herri-onura izenda dezan eskatu dio Gaztela eta Leongo Juntari, horrela eskuak libre izango dituelako behin behineko okupazioa egin ahal izateko eta ikerketa lanak egiteko. Espinosa de los Monteroseko hiru kilometrorako dagoen Angosto izeneko eremuan, ikerketetarako zundaketak martxan jartzeko asmoa du SHESAK. *Fracking*-aren kontrakoen asanbladek alegazioak aurkeztu zituzten otsailaren 19an, Espainiako Gobernuak Santanderren, Bizkaian eta Burgosen dituen ordezkarietzat, eta Angosto 1 eremuan ikerketako zundaketen egitasmoa bertan behera uztea eskatzen zuten. Era berean Euskal Kantauriko Arroan ur emari oso garrantzitsuak batzen dira, eta bertatik biztanle askok edaten dute. Ikerketako faseak ez dira egiten bulegoetan edo laborategietan, baizik eta haustura hidrauliko prozesua bere osotasunean garatuz, beraz, ustiatzeko arrisku berberak dituzte.

Arantza Palacio Vijandi ☪



Elgoibarren beti egon beharko litzateke guardiako botika: “Joan zen igandean larrialdi bat izan genuen, eta Elgoibarren ez zegoen guardiako botikarik. Asteburuetan askotan pasatzen dira horrelakoak, guardiak Mendaroko eta Soralezuko botikekin txandaka egiten dituztelako. Gaueko 22:00etatik aurrera guardiako botika herrian edukitzea ez da irtenbidea, larrialdiak eguneko edozein orduan gerta daitezkeelako. Elgoibarren lau botika daude, eta bakoitzari hilean asteburu batean tokatuko litzaioke guardia egitea. Horrenbeste eskatzea al da? Botiken negozioa monopolizatuta dago, eta botikak ezin dira edozein establezimendutan saldu, beraz, uste dugu herritarrei merezi duten zerbitzua eman behar zaiela. Jende guztiak ez dauka beste herri batera joateko autorik, eta Elgoibar bezalako herri batek 24 orduko botika zerbitzua merezi duela uste dugu. Ez dakit Udalak zerbait egin dezakeen gai honen harira, baina herritarrok eskertuko genuke”.


King-Kong zubi hasieran ur putzu handia sortzen da: “King-Kong zubiko obrak egin dituztenetik ur-putzu handia sortzen da zubia-
ren lehenengo zatian. Lehen ura irteteko zanga txiki bat zeukan zubiak, eta orain estali egin dute. Hori dela-eta, ura zubian bertan pilatzen da.



Trenbide kaleko igogailua oso zatarra da: “Trenbide kalean egin duten igogailua oso zatarra da, eta gune horretan lekuz kanpo geratu dela iruditu zaigu. Hasieran uste genuen behin-behineko estaldura zela kanpoaldeko estaldura urdin hori, baina jakin dugu hori izango dela behin betiko itxura. Horrez gain, Osasun Zentro aurrean beste igogailu bat egonda, ez zegoen beste igogailu baten beharrik. Rikardo Garate Hirigintza Saileko buruak esan du obra oraindik ez dagoela bukatuta, baina berari aldeko iritzia ere iritsi zaizkiola. Hainbat herritarrek esan diotela itxura horrek Pista Beltzeko asfalto eta porlanarekin apurtzen duela eta inguruari beste freskotasun bat ematen diola. Igogailuaren beharri dago-kionean, San Roke auzorako irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin egin dutela gaineratu du.



Pilar ikastetxeko tunelean argia jarri dute: “Merkatu plaza atzeko zubi zaharrear dagoen tunelean argia jarri dute, eta eskertu egin nahi nuke. Lehen oso ilun geratzen zen gune hori, eta argi horri esker askoz hobeto geratu da. King-Kong zubiaren ixtea beharrezkoa izan da erabaki hori hartzeko, baina arrazoia dena delakoa izanda ere, txalo bat eman nahi nioke Udalari”.



Bisita gidatua, bazkaria eta Sustrai akordeoi-taldearen kontzertua antolatu ditu Haizeak martxoaren 8aren harira

Domekarako elkarretaratzera deitu du Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu ditu Haizeak biharko. Goizean, Elgoibarko ondare kulturala ezagutzeko bisita egingo dute Pello Arrieta historialariarekin. 11:00etan batuko dira Kultur Etxe aurrean, eta ordu eta erdiko ibilbidea egingo dute —azalpenak gaztelaniaz izango dira—. Dagoeneko 35 bat emakumek izena eman dute —Pitxintxun eman behar da izena—. Horren harira, Haizea emakume taldetik aurreratu dute martxoaren 30ean formato bereko bisita-gidatuak hasiko dituztela Elgoibarren, Pello Arrietaarekin. Hilabeteko azken astelehenetan izango dira, 17:30ean.

Ondoren, 13:00etan, Maite Janeiro akordeoi irakasleak zuzendutako Sustrai akordeoi taldearen kontzertua izango dute, Kultur Etxeko sotoan. Bazkari batekin osatuko dute eguna. Sigma jatetxean bazkalduko dute gero, aurrez izena emandako emakumeek —60 bat emakumek zuten izena emanda—, eta bazkalostean poesia-errezitaldia eta dantzaldia izango dituzte.

Elkarretaratzea

Martxoaren 8rako elkarretaratzera deitu du Emakumeen Kontseiluak. Kalegoen plazan izango da elkarretaratzea, 13:00etan, eta Beinke bertso-eskolako ikasleek bertsoz girituko dute.



Martxoaren 8aren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Mendaron

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Mendaroko Ludotekak eta Gaztelekuak elkarlanean. Has-teko, biharko, martxoaren 7rako, jolas ez sexistak antolatu dituzte. Frontoian egingo dituzte jolasak, 16:30etik aurrera. Martxoaren 8rako, berriz, *Brave* filmaren emanaldia iragarri dute. Mark Andrewsen filma da, 93 minutuko iraupeneko. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 17:00etatik aurrera. Antolatzaileek dei egin diete herriko gaztetxo guztiei antolatutako ekintzetan parte hartzera.

‘Emakumeak txuri-urdinez’ erakusketa, hilaren 22ra arte



Barixakuan inauguratu zuten ‘Emakumeak txuri-urdinez’ erakusketa. Realak, Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak eta Elgoibarko Udaleko ordezkariak elkarlanean antolatu dute erakusketa, martxoaren 8aren harira. Realaren ehun urteko historian emakumeek izan duten garrantzia azpimarratzeko sortu dute erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute erakusketa eta bi ordutegi izango dira: astebarruan, 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Sexu indarkeriaren kontrako tailerra, Elgoibarko institutuan

Eraldatzen programaren barruan sexu indarkeriaren kontrako tailerra egin zuten joan zen astean Elgoibarko Institutuko Batxilergoko ikasleek. Urtxintxa eskolako hezitzaileek eman zuten tailerra. Neskekin talde bat osatu zuten, eta mutilekin beste bat, eta taldeka gaia aztertu ostean elkarrekin bateratze-lana egin zuten gero. Genero sistemen erakuntzaren inguruan gogoeta egin zuten gaztetxoek, eta identitate eraiki horrek indarkeriarekin duen lotura ere aztertu zuten, aurrez beste saio batzuetan egin izan duten legez.



Jardunaldia **Lanbide Heziketa**



Lanbide Heziketa eta industriagintzaren mundua ezagutzeko jardunaldiak antolatu dituzte Udalak, Meka Lanbide Eskolak eta IMHk. Ikastetxe bakoitzak duen eskaintzari buruzko informazio saioak eman zituzten atzo, baina jardunaldiari lotutako ekintzak martxoaren 23tik 27ra izango dira. Besteak beste, Lanbide Heziketa eta Industria mundua ezagutzeko tailer dinamikoak antolatu dituzte Ikastolako eta Arreiturre Institutuko DBH 4ko ikasleentzat. Ekimen horren baitan, OJMAR enpresa bisitatuko dute, benetako enpresa baten funtzionamendua ezagutzeko. Era berean, gaur egungo gizartearen estereotipoei buruzko hausnarketa egingo da, MEKA Lanbide Eskolaren, IMHren eta Manahmana enpresaren laguntzarekin.

Irudia **Istripua**

Goizeko 7:45ak inguruan istripua gertatu zen eguaztenean Sigmako zubiaren irteeran. Autobus batek eta auto batek aurrez aurre jo zuten, eta talkaren ondorioz auto-gidaria autoan harrapatuta geratu zen. Suhiltzaileek atera behar izan zuten ibilgailu barrutik, eta 8:45ak inguruan eraman zuten anbulantzia ospitalera. Autobusean Elgoibar BH Institutuko ikasleak zihoazen. Mendaroko ikasleak ziren, DBH1 eta 2. mailakoak. Onik atera ziren guztiak, baina badaezpada, Osasun Zentrora eta Mendaroko Ospitalera eraman zituzten batzuk, kolpearen ondorioz izan zitzaizketen zauriak aztertzeko. Institututik gutuna bidali zieten gurasoei, egunotan adi egoteko, kolpearen ondorioak egun batzuetara agertu daitezkeelako.

Istripuaren ondorioz itxi egin zuten 634 errepidea, Txankakoako eta Sigmako zubiaren artean, eta herri barrutik desbideratu zuten trafikoa.



Lan praktikak euskaraz egiteagatik, diru-laguntzak

Foru Aldundiak diru-laguntzak emango dizkie lanbide heziketako lan praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen duten enpresei. IMH-Ahize-AEK eta Lanekik egindako Gehitu ikerketaren arabera, 10 ikasletik 8 gai dira euskaraz lan egiteko, seik euskaraz lan egin nahi dute, eta, lauk praktika euskaraz egiten dituzte.

Enpresa bakoitzak 600 euroko kopuru finkoa jasoko du eta ikasle bakoitzaren prestakuntza ordu bakoitzeko 0,50 euro jasoko dituzte, 400 orduko mugaz. Diru-laguntza deialdia dagoeneko irekita dago, eta apirilaren 30ean amaituko da eskaerak egiteko epea. Informazio gehiago IMHn edo Lanekin eskuratu daiteke.



Almuñecarrera irteera antolatu du Jubilatuen egoitzak

Elgoibarko Jubilatuen Egoitzak Almuñecarrerako bidaia antolatu du maiatzaren 11tik 15erako. Almuñecar Playa Spa hotolean hartuko dute ostatu, lau izarreko hotolean, eta hainbat irteera egingo dituzte han inguruan. Besteak beste, Granada bisitatuko dute, eta hala nahi dutenek, La Alhambra ikusteko aukera izango dute, 20 euro ordainduta. Jubilatuen Egoitzako bazkideentzat 500 euro balio ditu irteerak, eta gainerakoentzat, 530 euro.

Trinitateetako azoka berezia

Udalak eta Debemen elkarteak antolatuta Trinitateetako azoka berezia izango da maiatzaren 30ean, eta dagoeneko zabalik dago azokarako ize-na emateko epea. Interesatuak Debemenera deitu beharko dute (943 744 067) datorren

HIROMI YOSHIDA

HIZKUNTZALARIA

Hiromi Yoshida (Yuzawa, Akita, 1960) hizkuntzalari japoniarra Elgoibarko Institutuan izan zen joan zen astean. Euskaldundutako japoniarra da Hiromi. Suzuko Tamura Japoniako euskaltzain ohorezkoarekin ikasi zuen euskara, Tokion, eta ikasketak amaitu zituenenik, sarri etorri da Euskal Herrira, Lazkaoko Maizpide barnetegira lehenengo eta Azpeitira gero. Euskararen gaineko hainbat ikerketa egin ditu, eta euskara bera izan zuen hizpide institutuan emandako hitzaldian.



“Euskaraz jakin eta ez egitea pekatu mortala da”

Nondik dator kizu euskararekiko interesa?

Linguistika orokorra ikasten ari nintzela gerturatu nintzen euskarara. Linguistika ikasleentzat oso hizkuntza ezaguna da euskara, besteak beste nondik datorren ez jakiteak oso berezia egiten duelako. Niretzat ere halaxe zen: oso berezia. Euskara ikasten hasi nintzen garaian, azkeneko urtea egiten ari nintzen fakultatean, eta garbi nuen hizkuntza arraro bat ikasi nahi nuela, ohikoa ez zena, eta euskara bazen hori; ezberdina da munduko gainerako hizkuntzekin alderatuta. Hala nengoe-la, jakin nuen gure irakasle batek euskara ikasteko talde txiki bat osatu nahi zuela eta izena eman nuen. Ez zen eskola ofiziala; gehiago zen partikular antzekoa. Bost lagun bildu ginen, eta oso talde polita osatu genuen. Sekulako giroa sortzen zen gure eskola-orduetan.

Japonian ikasi zenuen euskaraz, Euskaltzaindiak ohorezko urgazle izendatu zuen Suzuko Tamura irakaslearekin. Nolako irakaslea zen? Nola egin zuen zuek euskarara lotzeko? Nola egiten duzu orain euskara ez galtzeko?

Suzuko oso irakasle ona da. Eskola-orduak dibertigarriak ziren, eta horrek asko arintzen du ikaslearen lana. Ikasi dut euskaraz, eta orain ez nago galtzeko prest. Derrigortuta nago, gainera, lantzera, euskara irakaslea ere banaizelako orain unibertsitatean. Tokioko unibertsitate batean eta Osakako beste batean ematen ditut euskara-eskolak, eta api-

riletik aurrera, Tokiokoko beste unibertsitate batean ere hasiko naiz euskara irakasten. Egunerokoa dut nik euskararekiko harremana. Liburuak irakurtzen saiatzen naiz, eta hemengo berri izaten ere bai. Internetek asko erraztu du hori.

Euskarak eta japonierak badute ezaugarri amankomunik?

Badute elkarren antzik, baina loturarik ez. Euskararekin gertatzen zaigun bezala, japonierarekin ere gertatzen zaigu ezer gutxi dakigula hizkuntzaren jatorriari buruz. Ez dakigu nondik datorren, eta hori dute amankomunean. Hitzen ordena ere nahikoa antzekoa dute. ‘Ni ikaslea naiz’ esaten dugu euskaraz, eta japonieraz ere orden berean esaten dugu: subjektua, objektua eta aditza. Ezezko esaldiak, aldiz, oso ezberdinak dira. Adjetiboa ere ezberdin erabiltzen dugu: euskaraz, izenaren ondoren joaten da beti: ‘etxe txikia’ esaten dugu hemen, baina japonieraz aldrebes da, ingelesez bezala.

Euskara ikasteko orduan zer egin zitzaizun zailena?

Aditz-sistema eta ergatiboaren marka ahaztu gabe jartzea. Munduan hizkuntza askok dute ergatiboaren marka hori, baina japoniarrentzat zaila da, berria delako.

Noiz etorri zinen lehenengoz Euskal Herrira, eta nora? Zertan aritu zinen hemen?

1985. urtean etorri nintzen lehenengoz Euskal Herrira. Ikasketak amai-

tu nituenetik garbi nuen Euskal Herrira etorri nahi nuela, euskara hobeto ikasteko, baina orduan ez nuen balibaderik. Lanean hasi eta hiru bat urtera utzi egin nuen dena, hona etortzeko. Lazkaora etorri nintzen, Maizpide barnetegira (1987). Hilabete egin nuen hemen, eta asko ikasi nuen. Japoniara itzuli nintzen gero, eta sei hilabete geroago berriro etorri nintzen, sei hilabeterako. Lana ere topatu nuen hemen, eta japoniera eskolak ere eman nituen Donostian. Gerora sarri etorri naiz Euskal Herrira, baina beti Azpeitira.

Lehenengoz etorri zinenetik hona aldaketarik igarri duzu euskarari dagokionean?

Donostiako Parte Zaharrera lehenengoz joan nintzenean ikaragarri harritu nintzen uste nuena baino euskara gutxiago entzuten nuelako katean, baina azkeneko aldi honetan jabetu naiz euskararen ezagutzan asko aurreratu dela, orain tabernari guztiek dakitelako, gazteak baldin badira behintzat. Baina ezagutza da gauza bat, eta erabilera beste bat. Elgoibarko Institutura joan nintzenean ere, irakasleek esan zidaten kezkatuta zeudela ikasleek, D ereduak izanda ere, hitzik ere ez zutelako egiten euskaraz klasetik kanpora.

Azpeitira etorri ohi zara zu, euskararen birikadaren herrira. Horregatik aukeratu al zenuen Azpeiti zure egonaldiatarako?

Ez, kasualitatez izan zen. Azpeiti euskararen birika den ez dakit, baina egia da etorri nintzen lehenengo aldian ere jabetu nintzela inguruko beste herri askotan baino euskara gehiago egiten zutela hemen. Hona etortzeko arrazoia beste bat izan zen hala ere. Unibertsitatean masterrreko ikastaroa egiten ari nintzela, euskarari buruzko lan bat egitea egokitu zitzaidan. Aditz trinkoa aztertu nahi nuen, baina oinarritzat euskara batua hartu baino nahiago nuen euskalki bat hartu. Lan hura txukun egiteko, banekien onena Euskal Herrira etortzea zela, baina ez neukan dirurik, eta euskaldun baten bila hasi nintzen Tokion. Eta kasualitatez, azpeitiar bat ezagutu nuen Tokion bertan. Astean behin-edo elkartzten nintzen harekin, eta galdera asko egiten nizkion. Haren laguntzari esker bukatu nuen tesia ere, aditz laguntzaileari buruzkoa. Niretzat aditza da hizkuntza batean gauzarik interesgarriena.

Zein metodo erabiltzen duzu zuk euskara irakasteko? Alderik ba al dago hemen erabiltzen dutenarekin?

Lehenengo Euskal Herriari buruzko oinarritzat informazioa ematen diet beti, gerturatzeko bat egiteko. Munduan Euskal Herria non kokatzen den azaltzen diet eta esaten diet hiru zatitan banatuta dutela gaur egun. Ahoskera lantzen dugu gero, letrak eta hitzak nola ahoskatu behar diren jakin ezean ez dagoelako hitz egiterik, eta ondoren, agurrekin hasten gara: 'Kaixo', 'zer moduz', 'agur'... Eta ondoren, gramatika. Hemen erabiltzen duten metodoarekin ez du antzekotasun handirik, baina errealitateak ere oso ezberdinak dira, eta baita ikasleek euskara ikasteko duten motibazioa ere. Japonian, euskara ikasten dutenak ez dauka motibatuta euskaraz hitz egiteko, baina gramatika ikasi nahi dute, hizkuntza arraro hori nolakoa den jakitzeko.

Komunikatzeko euskararen beharrik ez duten ikasleak dira zuenak. Kurioso da.

Ez dute, ez. Interesa beste bat da han. Dena den, mundu ikuskera zabaltzeko balio izatea bada nahikoa.

Euskarak ez du horrenbeste hitzun, baina Japonian gurea baino egoera txarragoan dauden hizkuntzak badirela aipatu zenuen hitzaldian. Aizu hizkuntza da horietako bat.

Wikipedian begiratzen baduzu ikusiko duzu aizu hizkuntzak hamar hitzun dituela eta denak zaharrak. Sekulako ahozko literatura dauka, hori bai, eta zorionez, hori jasota dago, baina hizkuntza bera arriskuan dago.

Harrigarria da Japonian euskararekiko interesa agertzea jendeak eta han bertako hizkuntzetako bat transmititzeko gehiago ez egitea.

Hemen euskara gordetzeko ahalegin handia egin duzue, bai, baina han konturatu direnerako aizu hizkuntzak duen arriskuaz hitzun oso gutxi zeuden. Japoniako iparraldean bizi ziren ainuak, eta beti egon dira zapalduta. Hain ziren gutxi, oso zaila zutela burua altxatzea bera ere. Unibertsitatean badago ainua ikasteko aukera, dena den.

Institutuan hitzaldia eman zenuen. Zerk harritu zituen ikasleak gehien? Euskaldun izatearen kontzientziarik badute?

Ez nuke esango oso kontziente direnik oraindik. Ikastetxeetara joaten naizenerako ikasleek jakiten dute zertara noan eta ez dut azalpen gehiegi eman beharrik izaten.

Harritu ere lehen baino gutxiago harritzen dira japoniar bat euskaraz entzuten dutenean, hemen bertan ere etorkin asko daudelako eta haietako asko euskaldundu direlako. Gauza bat dago argi: euskaraz egiteari ez diotela duen garrantziarik ematen, orain behintzat. Seguru nago, hala ere, nagusia goak direnean konturatuko direla, baina beldur naiz ez ote den beranduegi izango, askok galdua izango dutelako gaur duten erraztasuna. Euskara ama-hizkuntza dute-

nei zorteko direla esaten diet eta baliatzeko hori; eta kanpotik etorri direnei, berriz, euskara ikasteko, euskarak lagunduko dielako bertakotzen.

Helduak dira haurren erreferente. Zer esango zenieke euskara seme-alabekin eta haien lagunekin bakarrik erabiltzen duten gurasoei?

Egiten dutena pekatu mortala dela. Euskaraz jakitea eta ez egitea dagoen okerrera da, bai euskararentzat eta baita haurrentzat ere.

Urtero etortzen al zara Azpeitira? Nolakoa da zure egun bat hemen?

Garai batean, bai, baina azkeneko lau urteotan urtean birritan etorri naiz. Euskaraz bizi naiz hemen, Azpeitik ematen didalako horretarako aukera. Gaztelaniaz zeozertxo badakit, baina euskaraz baino gutxiago. Hona etortzen naizenean, azpeitiar hitzun bat edo bi-hiru kontratatzen ditut, hasitako ikerketa-bidean sakontzeko.

Zer da Euskal Herriatik gehien gustatzen zaizuna?

Bizimodua bera, baina hori ere aldatzen ari da. Gizarte-harremanetan itxiagoak bihurtu garela esango nuke. Poteorako ohitura hori ere apaldu da. Herritarren arteko hartueman hori gustatzen zait gehien. Kalera irten eta inorekin gelditu ez arren, hemen beti topatzen duzu lagun bat, zerbait hartzeko. Tokion pentsaezina da hori. Lagun asko dauzkatzat han ere, baina hitzordua jarri ezean, nekez topatuko ditut kalean lagunak.

“Aditz-sistema eta ergatiboaren marka egin zitzaizkidan ikasteko zailenak”



HAIZEA SANCHEZ
FERNANDEZ DE JAUREGI

**“Hemengo basoetan hartzak ere badaude,
baina nik ez dut oraindik bat bera ere ikusi”**



Bidaiazteko aukera izan du Haizeak, eta tartean Oklahoman izan da.

Haizea Sanchez Fernandez de Jauregi elgoibartarra DBHko 4. mailako ikaslea da. Ikasketak atzerrian egiteko programa batean eman zuen izena, eta abuztutik Alaskan dihardu DBHko azken ikasturtea egiten. Ingeles maila hobetzeko, mundua ezagutzeko eta bizitza-esperientzien zakua aberasteko, joan zen besteak beste. Alaskako hegoaldeko Kodiak irlan dago, Elgoibartik 8.500 kilometrora. Maiatzean bukatuko ditu eskolak eta etxera itzuliko da.

AINHOA ANDONEGI

DBHko 4. maila Elgoibarren egin beharrean, Alaskarako bidea hartu zenuen iazko abuztuan.

Abuztuaren 18an goizean goiz hegazkina hartu nuen Alaskarantz. Nire asmoa ingeles maila hobetzea eta ohitura desberdinak ezagutzeko zen, eta modu egokiena ikasturte bat atzerrian igarotzea izango zela pentsatu nuen. DBHko laugarren maila egiten ari naiz. Uste nuena baino errazagoa egin zait eskolara ohitzea. Gustatu zaidan gauzetako bat nahi ditugun ikasgaiak hartzeko aukera da; 30 gai baino gehiago daude zerrendan!

alaska

Woody Island-en ateratako argazkia.



Nolatan aukeratu zenuen Alaska?

Nire planen barruan ez zegoen Alaskara etortzea. Estatu Batuak nahiago nituen beste toki batzuk baino, eta bidai agentziakoek erabaki zuten Alaskako familia honekin igaroko nuela ikasturtea. Izugarriko sorpresa izan zen niretzat!

Etxean zer esan zizuten Alaskara joan nahi zenuela esan zenienean?

Atzerriera joan nahi nuela esan nienean ez zuten ez baietzik ezta ezetzirik esan. Gurasoek hausnartzeko denboratxo bat behar izan zuten, normala den bezala. Beranduago, joango nintzela erabaki nuenean eta bete beharrekoa beteta zegoenean, mezu bat iritsi zitzaigun Alaskara joango nintzela esanez. Ez dakit nor harritu zen gehiago, gurasoak edo ni neu!

Non zaude zehazki?

Kodiak izeneko uharte batean nago; herriaren izena ere Kodiak da. Bi alaba eta bidean datorren semea dituen familia batean bizi naiz, aita eta ama "amerikarrekin". Denbora elkarrekin igarotzea gustatzen zaion familia da. Askotan afaldu ondoren mahai-jokoren batean jolastu edo ukelelea jotzen dugu. Umore ona daukate, sarritan txisteak kontatzen aritzen gara eta barre asko egiten dugu.

Nolakoa da herrialde hori?

Uharte batean nagoenez, ez dut aukera askorik izan kanpora irteteko eta Alaskako bes-

te toki batzuk ezagutzeko. Hala ere, toki hau izugarri polita da, mendiz eta landarez betetako ingurunean bizi naiz, itsasoaren ondo-ondoan. Basoetan hartzak ere badaudela esan didate, baina nik oraindik ez dut hartzik ikusteko aukerarik izan. Hala ere, arrano pila ikusi daitezke egunean zehar. Animaliak izugarri gustatzen zaizkit, eta arrano kume bat ikusi nuenean oso pozik jarri nintzen.

“Ingelesaz aparte, hemengo Alutiiq hizkuntza ere ikasten ari naiz”

Hemengo negua hotza izaten ari da, elurra kaleraino iritsi da pare bat egunetan. Hor ohiakozko izango da elurra, ezta? Nola moldatzen zarete?

Seguru Euskal Herriaren elur gehiago egin duela aurren! Gabonak baino pare bat egun lehenago egin zuen elurra, baina minutu gutxi batzuetan geratu zuen, zoritxarrez. Azken hilabeteetan, hala ere, kaleak elur zuriz estalita zeudela esnatu ginen egun batean. Bidea garbitu behar izan genuen arren, trineoarekin jolasteko aprobetxatu ge-

nuen, eta elurraz gozatzeko aukera izan genuen.

Zer moduz moldatzen zara hizkuntzarekin?

Ingelesarekin oso ondo moldatzen naiz. Hasi galduta ibiliko nintzela uste nuen, baina ez zen uste nuen bezain zaila izan. Hitz egitea apur bat kosta egiten zitzaidan, baina entzuten nuena ulertzeko arazorik ez nuen. Bost hilabetearen ondoren nire ingeles maila izugarri hobetu dela konturatu naiz, bai ahoskeran eta baita hitzak aukeratzeko orduan ere. Ingelesaz aparte, hemengo Alutiiq hizkuntza ari naiz ikasten institutuan. Kodiak ir-lako arbasoen hizkuntza da. Irakasleak oso jatorrak dira eta hizkuntza erakusteko duten modua asko gustatzen zait, parte hartzeko aukera handia ematen digutelako. Astearte batzuetan hemengo adinekoak etortzen dira eta umetan izandako esperientziak kontatzen dizkigute beraien hizkuntzan. Oso aberasgarria da.

Zure familiakoak eliztiarrak omen dira. Nola-koak dira mezak Alaskan?

la igandero joaten gara elizara. Gure eliza baptista da, baina herrian beste mota askotakoak daude, tartean erusiar eliza ortodoxoa. 9:30ak aldera talde txikitik biltzen dira herritarrak Bibliari edo erlijioari buruzko kontuak ikasteko. Hamaiketan meza hasten da, eta beti abesti batekin hasten gara. Ez nuen espero gitarak, piano eta bateriaz lagunduta abestea zen! Jendea agurtu ondoren, artzainak ia eskaririk daukagun galdetzen du, eta otoitz egin ondoren, berriz abesten dugu. Bibliako atal batzuk irakurri, eta artzainak liburuko gai bati edo erlijioarekin zerikusia duen gai bati buruz hitz egiten du minutu batzuetan. Azkenik, pare bat abesti gehiago abestu eta etxera joaten gara. Batzuetan eliza azpiko gunean bazkaltzen dugu, jendeak etxetik prestatuta eramaten duen jana.

Bidaiatzeko aukerarik ere izan duzu. Non ibili zara?



Negu honetan ez du elur asko egin Alaskan, baina egun batean zuritu zuen eta elurraz gozatzeko aukera izan zuten.

atzeritik alaska

Gabonetan Texasera joan ginen nire familia-koen senideak bisitatzen. Dallasen eta Houstonen egon ginen hiru astez. Houstonen leku ugari bisitatu genituen, besteak beste, Arte Eder eta Historia Naturalaren museoak. Galveston kostaldeko hiri batera ere joan ginen, eta han zehar egin genuen piasiaratxo bat. Oso egun atsegina izan zen. Gustuko irteeren artean NASARA joan ginekoea aipatu nahi dut. Espaziontzia ikusi genituen, eta Armstrongen ilargirako bidaia kontrolatu zuten gela bisitatzeko aukera izan genuen. Oklahomara ere joan ginen egun pasa, eta bertako historiari buruzko oinarriko kontuak ikasi genituen. Abendua zen, eta sekulako beroa egiten zuen! Dallasen ere hainbat herri bisitatu genituen autoz. Uste nuena baino zuhaitz gehiago zeuden eta nahiko polita iruditu zitzaidan. NBAko partida batera joan nintzen familiarekin, eta kantzako pantailan agertu nintzen! Partida oso interesgarria izan zen, eta primeran pasatu genuen.

Nola ospatu zenituzten Gabonak Alaskan?

Gabonak Texasen pasatu nituen ama amerikarraren gurasoen etxean. Afari eta bazkari handiak egin genituen Gabon egunean: patata purea, indioilarra, arandano mermelada, lekak eta azenarioarekin prestatutako jaki bat izan genituen. Ama amerikarraren neba bat

ere etorri zen, emazte eta alabarekin. Opari asko jaso genituen zuhaitz azpian eta zintzilikatutako galtzerdietan (goxokiak batez ere). Ilundu zuenean hango kaleetan zehar buelta bat eman genuen etxeetako argiak eta apaingarriak ikusteko. Oso polita iruditu zitzaidan.

Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana uhartea bera da. Mendi asko dago eta urrunekoak elurtuta egoten dira; zuhaitzak claude edonon eta Euskal Herrian ohikoak ez diren hegaztiak ikusten dira. Itsasoa etxetik gertu daukagu eta egunsentiak paregabeak dira. Baina uharte batean gaudenez, jaki gehienak kanpotik ekarri behar izaten dira, eta distantziak handiak direnez, ia edozertarako autoa erabili behar da. Hori da gutxien gustatzen zaidana.

Zu bisitatzera joango bagina, zer erakutsiko zeniguke?

Lehenengo pasiatzera joango ginateke herrian zehar, portu ingurutik, eta gero autoa hartuta ondoko herri batera joango ginateke baleak ikustera. (Apirila-maiatza inguruan izaten da baleak ikusteko garaia). Herrian bertan Alutiiq Museora joango ginateke, bertako kultura ezagutzeko, eta baita Baranov museora ere, hemengo historia hobeto eza-

gutzeko. Hurrengo egunean Abercromie-ra joango ginateke, basora, animaliak eta landareak ikusteko. Azkenik, hartzak edo beste animalia baten bat ikustera joateko ahalegina ere egingo nuke.

Maiatzean bukatuko dituzu eskolak eta etxera itzuliko zara. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia bikaina izan da. Ingeles maila izugarri hobetu dut, lagun asko egiteko aukera izan dut, beste herrialde bateko ohituratan barneratu naiz, eta zorionez familia ezinhobe baten nago bizitzen. Uste nuena baino gehiago ikasi dut, ia konturatu gabe.

Hemendik aurrera zein dira zure asmoak?

Elgoibarrera bueltatutakoan udako oporrak aprobetxatuko ditut lagunekin eta familiarekin egoteko, eta herriko kaleetan ibiltzeko. Gero, Batxillergoan hasiko naiz, eta bi urte igaro ondoren Unibertsitatera joateko asmoa daukat. Agian beste urteren bat egingo dut atzerrian. Hemengoe kin komunikatzen jarraitzeko aukera izatea espero dut, eta, nork daki, agian urte batzuk barru berriz etorri naiteke Alaskara. Baina epe laburrean kanpora joateko aukera suertatzen bazait Europako herrialderen batera joatea gustatuko litzaidake, Alemaniara edo Frantziara esate baterako.

Houstonen NASAREN instalazioak bisitatu zituzten.



Erretratu zaharra**1951**

Aste honetako erretratu zaharra Manolo Landak utzi digu. 1951n Eibarko Ipurua futbol zelaian ateratako argazkia da. Argazkian ageri diren gazte horiek Eulogio Etxeberria atletismo memorialean hartu zuten parte, eskualdeko beste hainbat korrikalarirekin batera. Gazte hauek bi urtez segidan irabazi zuten proba, 1950ean eta 1951n. Gogora ditzagun gazte horiek:

Golan: Jose Zabala, Floren Mendikute (†), Andres Urain (†), Jose Luis Zubia 'Urre' (†) eta Julian Urruzola. **Makurtuta:** Valentín Jauregi (†) (entrenatzailea), Javier Urruzola (†) eta Manolo Landa.



ESKERTZA

PEDRO REGIL IRURETA

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

2015eko otsailaren 28an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.





MARTA SAN MARTIN

DUATLOI ETA TRIATLOI EPAILEA

Marta San Martin elgoibartarrak kirola du gustuko, eta bizi du. Duatloi eta triatloiko epailea da. Urgazi Elgoibarko triatloi taldea sortu zenean, klubean sartu zen bera ere laguntzeko asmoz, eta handik sortu zitzaion epaile titulua ateratzeko aukera. Euskal Herriko titulua atera zuen lehenengo, Espainiakoa ondoren, eta gaur egun, nazioarteko titulua ere badauka. Hala ere, maila bat gorago jolatu asmoa dauka, eta azken kurtsoa gainditzen badu, Olinpiar Jokoetako epaile izateko titulua eskuratuko du. Oraintxe hasi da aurtengo triatloi denboraldia, eta otsailetik urrira bitartean aste-buruero ibiliko da herrietako proba desberdinetan, arauak betetzen direla zaintzeko.

“Olinpiar Jokoetan epaile lanak egiteko maila eskuratu nahi dut”

Duatloi eta triatloi epailea zara. Nola hasi zinen zeregin honetan?

Urgazi Triatloi taldea sortu zenean, Elgoibarko duatloia antolatzen zuten, eta haiei laguntzen hasi nintzen. Korrika eta igeriketa gustatzen zaizkit, eta klubeko kideekin hasi nintzen elkarlanean. Federaziotik jaso zuten gutun bat esanez klub bakoitzeko kide batek epaile lanak egin behar zituela, eta ni eta beste bi lagun joan ginen epaile titulua ateratzera. Hura izan zen lehen pausoa, eta poliki-poliki mailaz igotzen joan naiz. Lehenengo Euskal Herriko titulua atera nuen, eta handik hiru urtera nazioartekoa. Nazioartekoak hiru maila dauzka, eta ni bigarrenengoan nago. Maila honekin Europako edozein herrialdetan jardun dezaket epaile lanetan. Madrilen eta Bartzelonan munduko txapelketak izan dire-

netan ibili izan naiz, eta Euskal Herrian aste-buruero izaten dut lana. Otsailetik urrira aldera arte luzatuko da aurtengo triatloi denboraldia, eta epe horretan ez dut astebururik libratuko. Nire asmoa nazioarteko epaile titulua hiru urteko maila ateratzea da, eta lortzen badut, Olinpiar Jokoetan epaile lanak egiteko maila eskuratuko dut.

Egon al zara sekula Olinpiar Jokoetan?

Londresera joateko gonbidapena jaso nuen. VIP txartela emango zidatela esan zidaten, eta txartel horrekin nahi nuen toki guztietan ibiltzeko aukera izango nuen. Lanean nengoen eta egun haiek ez zitzaizkidan ondo etortzen. Pena izan zen, baina izango dut beste aukeraren bat. Iñaki Kondek Hawaiko Iron Man proban parte hartu nahi du, eta esan nion aukera hori suertatzen bazitzaion, bera-



rekin joango nintzela. Konde oso ondo dabil beteteranoetan eta nik uste dut lortuko duela Hawwaira joateko denboretan sartzea. Euskal Herrian sei edo zazpi ibiltzen dira beteteranoetan, eta ia proba guztietan elkartzen dira. Adin horretako jendea kirola egiten ikusteak poza ematen du. Iaz Pontevedran egon nintzen, Duatloiko Mundu Txapelketan eta partaideen artean 77 urteko emakume ingeles bat zegoen. Bizikleta proba bukatu zuenean, ezpainak margotu, itxura txukundu eta korrika proba hasi zuen! Hunkitu eta dena egin nintzen! Proba bukatu ostean berarekin eta beste beteterano batzuekin egon ginen, oso gustura. Triatlloiak diziplina handia eskatzen du, eta asko entrenatu behar izaten da. Triatlloi zaleentzat Hawaiko proba da garrantzitsuena, eta hara joateko aukera izatea, izugarria da. Alemanian ere badago proba garrantzitsu bat, eta hara joatea ere gustatuko litzaidake.

Zein izaten da epaile baten lana triatlloi probetan?

Partaideek araudia betetzen dutela zaintzea izaten da gure lana. Futboleak bezala, triatlloian ere arauak daude, eta partaideek bete egin behar dituzte. Epaileak proba hasieran egoten gara materiala kontrolatzen, eta gero motoan edo bizikletan joaten gara, partaidea gertutik zaintzeko. Horrez gain, Federazioan ere sartuta nago, eta epaileen ardura duna naiz, beste lankide batekin batera. Epaileen lanak banatu eta antolatzen ditugu.

Tokatu al zaizu inoiz partaideren bat deskalkifikatu beharra?

Bai, gertatzen dira horrelakoak. Asteburu honetan bertan, bigarren sailkatuak txartel gorria zeukan, eta deskalkifikatu zegoen. Erreklamazioa jartzea nahi zuen, baina azkenean onartu zuen. Txartel gorriak arau-hauste larriengatik ateratzen dira, eta kasu honetan ere halaxe izan zen. Lasterketa buruan zihoraz bi lasterkariak lehia bizian ari ziren, eta bizikleta proban bigarren zegoena errepidearen kontrako norabidean sartu zen, lehenengo aurreratzeko. Eta hori erabat debekatu dago. Errepidean errail bat itxita egoten da, baina bestea ez, eta oso arriskutsua da errail hartan sartzea, kontrako norabidean autoak ibiltzen direlako. Kasu honetan pare bat aldiz sartu zen beste errailean, eta gainera, autoa zetorren. Segurtasun neurriak ez betetzea arau-hauste larria da.

Zer ematen dizu epaile lanak?



Nire zaletasuna da. Ez naiz honetaz bizi, baina asko gustatzen zait lan hau. Asteburuero izaten ditugu probak, eta lagun artean joaten garenez, primeran pasatzen dugu. Oso gustura ibiltzen naiz. Batzuetan txirindulari edo atletismo probetara ere joaten naiz antolatzailerik laguntzera.

Epaile lanetan bitxikeriaren bat ere izango zenuen, ezta?

Askok izaten ditugu! Orain dela hiru edo lau urte Gasteizko triatlloian nengoen epaile eta partaideen zerrendan Iñaki Urdangarin ikusi nuen. Federatuak ez zirenentzako postu batzuk zeuden, eta haien artean eman zuen izena. Javier Berasategi (Virginia Berasategiren aita) nirekin zegoen kontrola egiten, eta han etorri zitzaigun Urdangarin. Probarako balio ez zuen bizikleta bat zeukan, eta esan genion hura ez zegoela baimenduta, eta lagun batek utzitakoa zela erantzun zigun. Gero, bere emaztea Cristina trantsizio puntu batera gerturatu zen senarrari zapatilak ekartzera. Bitxia izan zen.

Urgaziri esker eman zenituen lehen pausoak epaile lanetarako, eta orain Urgazi kluba desegin da. Zer gertatu da?

Gipuzkoako Federazioak eskatu zien klubei estatutuak berritzeko, eta Urgazin egin genituen bilera batzuk, baina inork ez zion lanari heldu. Pena handia hartu dut. Elgoibarren badago triatlloirako zaletasuna, eta gustatuko litzaidake horietako batzuk bildu eta berriz Urgazi martxan jartzea. 25 urte beteko lituzke aurten klubak, eta pena da bertan behera geratzea. Elgoibarko jendea beste herri batzuetako taldeetan sartu da. Azken lau edo bost urteetan indar handia hartu du triatlloiak, eta iaz bi mila lagun inguru federatu ziren Euskal Herrian. Elgoibarren 15-20 bat lagun egongo dira federatuta. Probetan parte hartzeko hobe da federatuta egotea. Federatu

gabe proba bat bakarrik egin daiteke, baina bigarrena egiteko federatuta egotea beharrezkoa da. Batzuek probatu egiten dute federatu aurretik, baina gero federatu egin behar da. Eta talde baten babesean aritzea, beti da hobeto. Nik poz handia hartuko nuke triatlloi zaletu batzuek Urgazi berriz martxan jarriko balute. 10-11 urtetan Elgoibarko duatlloia antolatu genuen, eta polita izango litzateke horrelako ekimenak berriz martxan jartzea.

Kirol Patronatuak antolatutako 'Emakumeak eta kirola' mahainguruan parte hartu zenuen. Nola ikusten duzu gaia?

Gero eta emakume gehiago ari da kirola egiten eta hori pozgarria da. Ni umea nintzenean mutilek askoz erraztasun gehiago zituzten kirola egiteko, eta orain umetatik mutilek zein neskek kirolerako aukera berberak dituzte. Urgazi sortuko balitz, polita izango litzateke Triatlloi eskola bat sortzea, umetatik ezagutu dezaten kirola. Durangon badago, eta ondo funtzionatzen du. Ume guztiak hasten dira korrika, eta bizikleta ere gehienek daukate, beraz, posible izango litzateke.

Emakumezkoen eta gizonzkoen kirola berdintze bidean ikusten dituzu?

Desberdintasun handiak daude oraindik, baina pausoak eman dira. Triatlloian tratamendu berdina emateko diegu, ez dugu bereizketarik egiten emakume eta gizonen artean, eta sari berberak banatzen ditugu, partaideen artean emakumeak bost eta gizonak 150 izan arren. Kirolean berdintasuna sustatu behar da. Elgoibarren saiakera handia egiten ari dira, eta horren adibide da korrika egiteko sortu den emakumeen taldea. Mutil batzuei ere kostatzen zaie kirola egitera bakarrik irteatea, baina emakumei askoz gehiago.

Elgoibarko eta Mendaroko 73 emakumek bukatu zuten Donostiako Lilatoia

la 4.000 emakumek hartu zuten parte

Lilatoia 26. edizioa jokatu zuten domekan Donostian, eta ia 4.000 emakumek hartu zuten parte, sekula baino gehiagok. Elgoibartik eta Mendarotik ere asko izan ziren emakumeen herri lasterketan parte hartu zutenak: 55 elgoibartar eta 18 mendaroar, hain zuzen ere.

Club Athletico San Sebastianek antolatu du aurten estreinakoz Lilatoia eta inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ditu. 3.870 emakume zeuden izena emanda eta 3.616k amaitu zuten proba (iaz 3.146 lagunek amaitu zuten). Elgoibarren eta Mendaron elkarrekin korrika egiteko ekimeneak arrakasta handia izan dute azken aldiak emakumeen artean, eta horren ondorioz beharbada, sekula baino emakume gehiago joan ziren domekan kirola eta aldarrikapena uzartzen dituen lasterketara.

Donostiako erdigunean zehar bost kilometro egin zituzten antxitxika. Gure ordezkarien artean, Izaskun Hurtado izan zen azkarrena, eta sailkapeneko 50. postuan sailkatu zen.



Goiko argazkian Elgoibarko neskak, eta azpian, Mendarokoak.

Jose Mari Bernedok irabazi du Arnoetako igoera



Aingeru Guardako jaien barruan, Arnoetako igoera jokatu zuten zapatuan Mendaron. Euria egin zuen zapatuan, eta zazpi lagunek bakarrik hartu zuten parte. Parte-hartzea inoizko txikiena izan zen. Jose Mari Bernedo eibartarra izan zen azkarrena, 22:30 denborarekin. Minutu bateko aldearekin iritsi zen Jon Larrañaga mendaroarra, eta hirugarren sailkatua Eibarko Igor Fernandez izan zen, 23:55 denborarekin.

CD Elgoibarren zozketa

CD Elgoibarko alebin taldeak Oxford-era bidaiatzeko errifak saldu zituen klubak, eta Igor Isasmendi izan da irabazlea, 6.359 zenbakiarekin. Eibar-Athletic partidarako bi sarrera eskuratu zituen.



Euskal Herriko lasterketa bertikalen txapelketa irabazi du Iñigo Larizek

Azpeitiko Zuzenien lasterketa irabazi zuen domekan

Zuzenien kilometro bertikala jokatuz zuten Azpeitian domekan, eta Iñigo Lariz izan zen Xoxote puntan dagoen San Inazioaren estatuara iristen azkarrena (00:34:05). Larizek 27 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, eta lasterketa bera irabazteaz gain, Bertikalen Euskal Herriko txapelketa ere irabazi zuen. Garaipen honi esker, ekainean Fuente De-n (Asturias) jokatuko den Espainiako Kilometro Bertikalen txapelketan hartuko du parte.

Datorren asteburuan eskiak jantziko ditu berriz Larizek, Altitoy mendi-eski proban parte hartzeko.

Lendinez, bosgarren

Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinez el-



Arg.: Aitor Elduaen

goibartarrak bosgarren egin zuen, 46:24ko denborarekin.

Lariz eta Lendinezekin batera, beste lau elgoibartarrek ere hartu zuten parte Azpeitiko Zuzenien lasterketan. Iban Murua 12. postuan iritsi zen helmugara, 37:04ko denborarekin, 18. postuan sailkatu zen Ioritz Conde (00:42:37) eta, azkenik, 59. postuan sailkatu zen Unai Etxeberria (00:42:37).

Iñaki Olidenen idi-parea gailendu zen Euskal Herriko idi-proba txapelketan



Arg.: elgoibar.eus

Euskal Herriko idi-proba txapelketaren finala jokatu zuten zapatuan, Sigmako probalekuan. Hiru idi-pare aritu ziren lehian eta Orioko Iñaki Olidenen idiek irabazi zuten dema, 54 plaza eginda. Lemoizko Andra sagardotegiak aurkeztu zuen idi-pareak eskuratu zuen bigarren postua, 48 plaza, 3 zinta eta 3,58 metroko markarekin. Bizkaitatik etorri zen bigarren idi-parea, Bakioko Txomin Renteriarena, geratu zen hirugarren postuan (37 plaza eta 3,05 metro). Idiek 2.030 kiloko harriarekin lan egin behar izan zuten, ordu erdiko saioan.

Irabazleak 1.400 euro, mantak eta garaikurra jaso zituen; bigarrenak, 1.200 euro, eta hirugarrenak, 1.000 euro.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ordizia 0 – Haundi 1 (Pref.)
 Billabona 3 – Elgoibar 1 (Erreg.)
 Elgoibar 1 – Amaiak Bat 2 (Jub.)
 Elgoibar 3 – Real Sociedad 1 (Kad. A)
 Arizmendi 2 – Elgoibar 3 (Kad. B)
 Elgoibar 3 – Martutene 1 (Lehen inf.)
 Elgoibar 6 – Ekintza 0 (Inf. Txiki)
 Elgoibar 1 – Arrasate 1 (Aleb.)
 Elgoibar 7 – Zumaiako 0 (Aleb.)

PILOTA

Udaberi txapelketa

Lagunak 22 – Antigua 7 (2. jub.)

Debarroko txapelketa

Lagunak 15 – Arrasate 22 (Jub.)

Hernani 25 – Lagunak 11 (1. maila. nag. Pala)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 5 – Santurtzi 4 (2B)

ESKUBALOA

Bankoa Elg. 33 – Basauri 28 (Kad. mut.)
 Pulpo 20 – Txarriduna Elg. 29 (Inf. mut.)
 Cometel Elg. 19 – Aiala 21 (Inf. neska.)
 Tolosa 14 – Ikus Elg. 30 (Inf. neska.)
 Gabaz Elg. 15 – Aloña Mendi 24 (Sen. mut.)
 Usurbil 21 – Beristain Elg. 32 (Jub. mut.)
 Deca Elg. 33 – Corazonistas 33 (Kad. mut.)
 Egia 22 – Pneumax Elg. 12 (Kad. neska.)
 Murgil Elg. 1 – Pulpo 32 (Inf. mut.)
 San Roke Elg. 37 – Anoeta 26 (Inf. neska.)
 Usurbil 21 – Tecnifuelle Elg. 25 (Kad. neska.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7

12:30 Elgoibar – Allerru (Inf. Txiki)

16:30 Haundi – Hernani (Pref.)

18:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

10:00 San Roke Elg. – Eibar B (Inf. neska.)

11:15 Deca Elg. – Leizaran (Kad. mut.)

12:45 Pneumax Elg. – Ordizia (Kad. neska.)

17:45 Tecnifuelle Elg. – Kukullaga (Kad. neska.)

19:30 Lauko Elg. – Logroño (Sen. neska.)

Domeka, 8

10:00 Ikus Elg. – Aiala B (Inf. neska.)

11:15 Beristain Elg. – Urola (Inf. neska.)

12:45 Astigarraga Elg. – Eibar (Jub. neska.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 6

20:30 Lagunak – Urnieta (2. maila nag.)

‘Palabras’ antzezlanak eskainiko dute gaur, barixakua, Elgoibarren

Tratu txarren inguruko lana da, ‘Hitzak’ obraren moldaketa

Hika antzerki taldeak *Palabras* antzezlanak eskainiko du gaur Elgoibarren (Herriko Antzokia, 20:30). Agurtzane Intxaurreagak eta Arantxa Iturbek elkarlanean idatzitako *Hitzak* lanaren moldaketa da *Palabras*, eta Intxaurreaga bera da zuzendaria. Tratu txarren inguruko obra da, eta lau antzezle arituko dira oholtzan: Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pikaza eta Jabi Barandiaran. Sarrerak www.kutxa.es bitartez eta Kultur Etxean ere erosi ahako dira, baina lehiatilan ere jarriko dituzte.



‘Tomasek abenturak’ antzezlanak, martxoaren 15ean, Elgoibarren

Xepeta produkzioak taldeak *Tomasek abenturak* antzezlanak eskainiko du martxoaren 15ean Herriko Antzokian, 16:30ean. 4 urtetik aurrerako haurrentzako lana da, ordu-bete ingurukoa. Antzezlanean, Tomax eta Muxugorri mendira joango dira. Perretxiko batzuk bildu ondoren, tontorrera abiatuko dira makila hartuta. Sarrerak www.kutxa.es bitartez erosi daitezke, eta Internetez saldu ez direnak, egunean bertan jarriko dituzte salgai, lehiatilan.

Zine-foruma antolatu du Haizeak ostiralerako

Haizea emakume taldeak zine-foruma antolatu du gaur zortzirako, martxoaren 13rako. Ken Loachek zuzendutako *Pan y rosas* filma aztertuko dute, eta ohi legez, Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. 21:30ean hasiko da emanaldia.

Zortzi elgoibartar Beasaingo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako beste saio bat jokatu zuten asteburuan, Beasain, eta Elgoibarko zortzi dantzari gaztek parte hartu zuten: Amaia Sasiain, Maddi Zabala, eta Oier Galindo 7 eta 11 urte artekoetan, eta, Nerea Sasiain, Amaia Astigarraga, Irati Marcos, Eneko Gonzalez eta Gaizka Uranga 11 eta 15 urte artekoetan. Oier Galindorentzat estreinako aldia izan zen.



Big Boy taldearen kontzertua izango da gaur, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan



Big Boy taldea gonbidatu du Sinuosek Elgoibarrera. Zumaiaiko sei lagunek osatzen dute taldea, eta haize instrumentuak, kitarra, baxua, organua eta bateria erabiltzen dituzte musika sortzeko. 2012an sortu zuten taldea, eta diskoa ez ezik, taldearen sorkuntza eta ibilbidea azaltzen duen dokumentala ere sortu zuten. Kultur Etxeko sotoan kontzertua eskainiko dute gaur, 23:00etatik aurrera, eta sarrerak hiru eurotan jarriko dituzte salgai.

‘Muchas noches, buenas gracias’ antzezlanak eskainiko dute bihar, zapatua, Mendaron

Muchas noches, buenas gracias antzezlanak ikusteko aukera izango da bihar Mendaron. Euskal Telebistako *Vaya Semanita* saioko Andoni Agirregomezkorta eta Lander Otaola dira aktoreak, eta sariketa ekitaldi baten gaineko satira aurkeztuko dute. Komedia da obra. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etatik aurrera. Sarrerak Morroskilon daude salgai, 7 euroan. Sarrera denak salduko ez balira, gauean San Agustinen bertan ere jarriko lituzkete salgai.



Askotariko adierazpen artistikoen gune bihurtu nahi dute Gabaz

Growing Shots taldearen kontzertua izango da gaur

Funky-Rock kluba, Flamenko-jazz kluba, arte plastiko zein eszenikoak, musika eta dantzarekin zerikusia duten ikastaroak eta zuzeneko musika emanaldiak antolatuko ditu Gabaz tabernak aurrerantzean. Barixaku honetan aurkeztuko dute egitasmoa eta Growing Shots taldeak zuzeneko emanaldia eskainiko du.

Zuzeneko emanaldi eta ikuskizunak bariakuetan eta zapatuetan eskainiko dituzte. Astebarruan, berriz, era guztietako ikastaroak antolatuko asmoa dute, besteak beste, gitarrarikastaroa, argazkilaritza, musika grabazioak nola egin, e.a. Gabaz funky-rock eta Gabaz flamenko-jazz klubak sortzeko asmoa ere badute, musika eta dantza estilo horietan sakondu nahi duten lagunentzat. Ikastaro intentsibo edo master-classak ere eskainiko dituzte kontzertuak eskaintzera etorriko diren talde eta bakarlariek.

Gaur, Carlos Santana, Amy Winehouse, James Brown, Herbie Hancock, Miles Davis eta beste hainbat artista ezagunen abestiak



joko ditu zuzenean Growing Shots taldeak. 23:00etan hasiko da emanaldia eta sarrerak 3 euroan jarri dituzte salgai. Gainera, Maala edo Txarriduna tabernetan afalduz gero, ez da sarrerarik ordaindu beharrik izango.

'Jostunak' dokumentala emango dute gaur Mendaron

Mendaroko Gure Esku Dago batzordeak *Jostunak* dokumentala eskainiko du gaur Mendaron, San Agustinen (22:00). Ordu eta erdiko dokumentala da, Eriz Zapirainek eta Ion Telleriak landutako gidoiaren bueltan egindakoa, eta Gure Esku Dago dinamikan parte hartu duten herritar anonimoei ematen die protagonismoa. Era berean, baina, erabakitze eskubidearen inguruko korapiloak ere azaltzen dituzte.



Inazio Bereziartua musika eskolako 55 lagun Andoaingo piano jaialdian



Joan zen asteburuan egin zuten Andoainen azken urteotan horren ospe handia hartu duen Seiasle piano-jaialdia, Euskal Herrian erreferente izatea lortu duen jaialdia. Hamargarren aldia izan da aurten, eta Hego Euskal Herriko 874 piano ikaslek parte hartu dute bertan. Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako ikasle eta irakasleek ere parte hartu zuten jaialdian, 50 ikaslek eta bost irakaslek hain justu ere. Aurten, Seiasleko bost irakasle eta Tere Laspiur omendu zituzten jaialdian.

LANA

ESKAERA

- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Sukaldari laguntzaile edo zerbitzari gisa lan egingo nuke. ☎ **631 974 442**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Adinekoak zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Interna ere bai. ☎ **631 705 406**
- Emakume arduratsua adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Egunez zein gauzez. ☎ **682 255 834**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Interna ere bai. ☎ **632 454 417**
- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko. ☎ **632 955 016**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile aritzeko, adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko. ☎ **632 423 984**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia. Gidabaimena dut. ☎ **689 571 882**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- 43 urteko gizonezkoa lan bila. Euskal Herrikoa. Banatzaile, fabrika garbitzaile, igeltsero laguntzaile, lorezain... Fenwich erabiltzen esperientzia. ☎ **603 644 117 (Felipe)**
- Neska euskalduna eskaintzen da

- persona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **660 511 781**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanerako edo sukaldari laguntzaile modura lan egiteko. ☎ **665 424 510**
 - Emakume serio eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Interna edo orduka. Asteburuak ere bai. ☎ **631 124 942**
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 457 254**
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ospitalean ere bai. Gauzez edo orduka lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ **602 805 363**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. Esperientzia handia daukat. ☎ **631 506 763**
 - Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna edo orduka. ☎ **631 834 241**
 - Emakumea eta gizona pertsona helduak zaintzeko prest. Egunez eta gauzez. ☎ **630 410 294**
 - Emakume euskalduna eskaintzen da goizez lan egiteko. Etxeko lanak egiteko. ☎ **639 054 041**
 - Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **608 523 426**
 - Emakumea etxeko garbiketak egiteko prest. ☎ **639 423 493**

- Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo haurrak zaintzeko. Interna lan egiteko prest. ☎ **640 226 895**
- 50 urteko emakumea lan bila. Euskal Herrikoa. Sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile... Esperientzia fruta-saltzaile bezala jende aurrean. ☎ **667 015 984 / 603 644 117**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **636 976 515**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak ditut. ☎ **680 808 125**
- Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest, arratsaldez edota gauzez. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 651 098**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 363 056**
- Gizona pertsona helduak zaintzeko edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ **631 235 925**

ESKAITZA

- Sukaldari laguntzaile behar da. CVak Gautxo tabernan utzi.
- Klase partikularak jaso nahi nituzke: Gaztelania eta Matematika. Goi

mailako modulo baterako maila. ☎ **943 741 042**

ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Elgoibarren. Oso merke: 65.000 euro. 3 gela, sukaldaria eta komunak. ☎ **618 210 899**
- Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **609 523 426**
- Pisia edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **653 747 328**
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Prezioa negoziagarria da. ☎ **660 055 692**
- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **632 143 239**
- Etxea handia hartuko nuke alokairuan. Bikotea eta hiru seme-alaba gara. ☎ **676 602 481**

BESTELAKOAK

- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ **659 377 095**

OSPAKIZUNAK

- 1970ean jaiotakoan bazkaria, martxoaren 14an, Sigma jatetxean. 55 euro: Bankoa: 0138 0020 1100 10693802. ☎ **607 477 405 / 663 694 896**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Zer gertatzen da atiko bateko bizilagunak ez badu lagatzen bere etxera sartzen komunitateko konponketa batzuk egiteko edo ez badio lagatzen perituari arazoak sorburua duen jakitzeko behar dituen probak egiten?

Komunitateari dagokion arazo bat konpontzeko beharrezkoa denean, bizilagunak behartuta daude euren etxeetara sartzen uztera. Utziko ez balute, haien kontrako salaketa jartzea da gelditzen den bide bakarra.

Egoera honetan, beharrezkoa da:

- Atiko horren jabearen prestutasuna, arazoak sorburua non duen argitzeko.
- Perituaren txostena, arazoa non dagoen identifikatzeko
- Obra berriaren deklarazio-eskritura, estatutuak edo komunitateak adostu dituen beste erabakiak aztertzea.

Hiru horiek aztertuta, jakingo dugu erantzukizuna zeinena den: komunitatearena, atiko horren erabiltzailearena edo biena.

Zehaztu beharko litzateke egin beharreko konponketa zein den, eta horrek zer kostu izango lukeen. Ikusi beharko genuke terrazaren ohiko erabileraren ondorio diren egin beharreko gastu horiek edota eraikinaren zahartzearen, diseinuari lotutako hutsuneen, erabilitako materialen kalitate eskasaren... ondorioz egin beharrekoak diren.


AHOLKUA: Kasu askotan funtsezkoa da peritu baten txostena izatea arazoa nondik datorren jakiteko eta erantzukizuna nori dagokion zehazteko. Auzian esku hartu behar duten agente ezberdinak koordinatzea kudeatzaile profesional bati dagokio, besteak beste egin beharreko guztiak behar bezala egiten direla bermatzeko

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Mikel!** Aita-txo, aittitta eta amamaren partez. Muxu handi bat.




• Zorionak, **Victor**, hilaren 27an 6 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak **etxeko gizontxoari!** 6 urte! Muxu pila bat, etxekoen partez.




• Zorionak **Jone** etxeko printzesari, gaur 2 urte egin dituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Iker**, 8 urte bete dituzulako. Besarkada handi bat etxekoen, eta batez ere, anaia Oierren partez.



• Zorionak, **Junes**, bost muxu potolo asteazkenean zure urtebetetze eguna izan zelako. Zure anaia Eneiren partez.



Zorionak, **Maite**, Ea igandean 4 kandela-txoak itzaltzen dituzun. Muxu potolo-potolo bat etxeko denon partez.



• **Oinatz**, igandean 4 urte! Ondo pasa eta-muxu handi bat zure arreba Iraiaren eta etxeko gainerakoen partez.



• Zorionak, **Naia**, zure zortzigarren urtebetetzean! Muxu haundi bat familixakuen eta bereziki Julen eta Ikearren partez.



• Zorionak, **Markel**, zure zortzigarren urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki asko maite zaituen anaia Anderren partez. Muxu handi bat, eta ondo-ondo pasa.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

<p>PREZIOAK</p> <p>Erretratu bakarreko agurra: 4'50€</p> <p>Argazki bikoitza: 7€</p> <p>Hirukoitza: 9€</p> <p>Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€</p>	<p>ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK</p> <p>Erretratu bakarreko agurra: 3'50€</p> <p>Argazki bikoitza: 6€</p> <p>Hirukoitza: 8€</p> <p>Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€</p>	<p>Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira</p> <p>BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.</p>
---	--	---



Martxoaren 11ko sukaldaritza tailerrean **“Argentinako talo frijituak”**.
On egin!

Urpekaritzari buruzko saioa izango dugu gaztelekuan martxoaren 20an, 18:00etatik aurrera



6 barixakua

Gure Esku Dago

22:00 'Jostunak'

Dokumentala, Mendaron.
San Agustin kulturgunean.

Musika

23:00 Big Boy

Sinuosek antolatua, Kultur
Etxeko sotoan.

7 zapatua

Politika

11:00 EHBilduren bilera

Elgoibarko gazteentzako
dinamika parte-hartzailea,
Udal Programa osatzeko. Itur
Etxeko hitzaldi gelan.

Antzerkia

22:00 'Muchas noches,
buenas gracias'

Mendaroko San Agustin
kulturgunean.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
Garitaonandia 7 Etxeberria 8 Etxeberria 9 Fernandez 10 Yudego 11 Oruesagasti 12 Barrenetxea 13 Ibañez	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Siempre Alice»

7, zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

8, domeka: 19:00

9, astelehena: 21:30

«No llores, vuela»

(Ongarri zine-kluba)

12, eguena: 21:30

OHARRA

San Jose Egunekeo jai-zubia dela eta, martxoaren 20an ez dugu BARRÉN kale-ratuko. Hortaz, ale horretan informazio-
ren bat argitaratzea nahi zenutenok
datorren asterako ekarri beharko dizue
gure erredakziora. Eguazten eguerdira
arte jasoko dugu informazioa.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

6 BARIXAKUA

20:30 'Palabras'

Hika antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

7 ZAPATUA

11:00 Bisita kulturala

Pello Arrietarekin, herrian zehar.

13:00 Soinu kontzertua

Sustrai akordeoi taldearekin, Kultur Etxeko sotoan.

14:30 Emakumeen bazkaria

Haizeak antolatuta, Sigma jatetxean.

8 DOMEKA

13:00 Kontzentrazioa eta bertsoak

Emakume Kontseiluak eta Beinke bertso-eskolak antolatuta.



II. URTEURRENA

IÑAKI ARGARATE IRIONDO

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

“Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean”

Zure lagunak



Unibertsitatea,
inguruko gizartearekin
inplikatzea ere bada.

erronkarako #prest



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 14

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · APIRILAK 16

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 14

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MARTXOAK 28

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA**

ESKORIATZA · MARTXOAK 7

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 7

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 21

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

Aner Urruzuno,
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza,
2. maila.

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



HURRENGO ERAIKUNTZA

UZTARRI ETXEAK

11 Etxebizitza berri Elgoibarren

Etxebizitza
erabilgarri eta
erosoak zentzuzko
prezioan

BIKUN ERAIKUNTZAK sustatutako 11
etxebizitza Uztarri eraikinean.

Ezaugarri bereziak:

- 90 eta 60 metro koadroko etxeak (2 eta 3 logelatakoak).
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza.
- Aireztapen gurutzatua eta orientazio bikainarekin.
- Aparkalekua eta trastelekua (aukeran).
- Diseinu funtzionala.

Zure beharretara egokitutako etxeak dira,
kalitate goreneko materialekin egindakoak.

KOKAPEN ONENA



943 741 528

www.bikun-eraikuntzak.com

Kokapen hoberean: herrigunetik 5 minutura oinez, Santa Klara lomentu ondoan, eta Jausoro plazatik gertu.